

Irabazi arte!



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Urte bukaerako giroan murgildurik, gibel mirailean begiratu eta uda huntako bizipenetatik ateratako gogoeta batzuk bota nahi nituzke hemen. Ekainaren 23an, ELB eta Lurzaindiako militanteek hamabi hektareako salmenta oztopatzeko abiatutako okupazioa, Arbonako Berroeta pentzean. Etxetik hiru kilometrotan. Hori oparia! 120 gauz eta 120 egunez milaka herritar aldizkatu dira, erresistentzia horren gorpuzteko: laborari, hiritar, langile prekario, erretretadun uros, militante aritu edota arazoaz kezkatutako herritar xumeak. Aniztasunean.

Berroetako afera ezin zen irabazi, ez politikoki, ez juridikoki. Saltzaile ultra-gurmanta eta erosle hiper-aberats baten arteko afera pribatua zen. Iniziatiba abiatu zutenek untsa ulertu zuten okupaziorik gabe, ez zela aterabiderik. Disuasioa zen, orduan, soluzio bakarra. Eta (zerbait) lortu da!

Arbonan jokatu denak, eta molde orokorrean lurraren aldeko borrokak, badute Davidek Goliathen kontra eramandakoaren itxura zerbait. Lurrarekin espekulatu nahi dutenek, sistema osoa

Garrantzitsua da
oroitaraztea borrokaren
bidez irabazten ahal
direla batailak.
Herritar xumeak
izan gaitzke harri
koxkor horiek

dute alde: legedia, zerga banaketa, oinordekotza araudiak, instituzioen promozio kanpainak, notarioen jarrerak, higiezin agentzien eskrupulu eza... Baina batzuetan harri koxkor ñimiño batek bloka dezake sistemarik gotorrena ere.

Azken aldietan, espero ez zitekeen batailatxo batzuk irabazi dira alor horretan. Berroetan, erosleak erosteari uko egin dio. Urrian, Urkoidarren mobilizazioari esker, 20 milioi euroko negozio zifra duen Pichet immobilier enpresak

jakinarazi du auzo bat eraikitzeke xedea bertan behera utzi duela. Azaroan, Alda kolektiboak eramandako okupazio serie baten ondotik, Airbnb multinazionalak adierazi du legez kontrako hainbat egoera konponduko zituela. Eta bihar, apika, Kanboko Marienia laborantzarako pentze egonen da...

Garrantzitsua da oroitaraztea borrokaren bidez irabazten ahal direla batailak. Herritar xumeak izan gaitzke harri koxkor horiek. Baina ezinbestekoa da tokian tokiko mobilizazio guzi horiei dimentsio orokorrago baten ematea. Ez girelako Urkoien borrokatzen gure auzoaren lasaitasuna mantentzeko, edo AHTaren kontra gure baratzea salbatzeko, edo Lekarozen paisaiak babesteko. Peko errekarera eramaten gaituen logika oso bat dugu borrokatzen. Proiektu txikitzaile hauek ez ditugu nahi ez hemen, ez nihun.

Irabazi arte izan da 'Berroetarron' leloa. Etxebizitza eskubidearen afera, angelu desberdinetatik jorra daiteke. Uste dut on egiten duela ere erratea paturik ez dela eta ez girela galtzera kondentatuak. Segi aitzina, irabazi arte! ●



Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofia parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.

Industrialia

Ihinzadura

Bioteknologia



www.goizper.com